



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSA OHARRA

Batzar Nagusiek administrazioen arteko koordinazioa hobetzea eskatu dabe, Bizkaitik igaroten dan Donejakue Bidea sustatzeko

Bilbon, 2013ko urriaren 2an

Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomia eta Ogasuneko batzordeak aho batez onartu dau Bizkaiko Alderdi Popularraren (PP) Arauz Besteko Proposamen bat. Bertan, eskaerea egiten jako Aldundiari, “Eusko Jaurlaritzaren eta Basquetourren laguntzagaz Bizkaiko Donejakue Bidea sustatzeko eta horren kultur eta turismo garapena aurrera eramateko modua aztertu daian”. Arturo Aldecoarentzat, PP taldeak Batzordean daukan bozeroalearentzat, kontua, Euskadiko erakundeek gure Lurraldea zeharkatzen daben bide “turistiko eta kultural” biak, kostaldekoa eta barrukaldetik doana, sustatzeko lana “eraginkorrago” izatea da.

2009an Eusko Jaurlaritzak, Euskaditik igaroten diran Donejakue bide bien kultur eta turismo garapenerako eta sustapenerako “Plan Zuzendaria” idatzi eban. Aldecoak bere idazkian gogoratzen dauenez, dokumentu horren ideia nagusia, bide biak, igaroten diran herrien eta eskualdeen garapen osorako “aukera eszenatokia” dirala da. Horregaitik, PP-ren ustez, Eusko Jaurlaritzako planean jasoten diran ekintzak “eraginkorragoak” izango litzatekez Aldundiagaz “koordinata” egingo balira.

Bizkaiko Batzarretako talde guztiak bat etorri dira esatean Donejakue Bidearen bide biak aberastasun iturri dirala lurraldearentzat. EH Bilduk Euskadiko administrazioen “esfortzu handiagoak” eskatu ditu bide horreek zaintzeko eta sustatzeko, “erlijiozko” ibilbide hutsa baino askoz gehiago diralako. Socialistas Vascos (PSE-EE) taldeko Alexia Castelok sinergiak ezartearen eta koordinazioa lanak hobetzearen aldeko apustua egin dau, “baliabideak optimizetako” unea dalako.

EAJ-PNV taldeari jagokonez, Aldundiak turismoa sustatzeko egiten dauen beharra defendidu dau. Jeltzaleek esan dabenez, administrazioen arteko alkarlana “existitzen da”, eta Ekonomiaren Sustapenerako departamentua plan horretan jasoten diran ekintzak aurrera erooten dabil, Turismo eta Kanpo Sustapen zuzendaritzaren bitartez, Eusko Jaurlaritzak marketan dituan erritmoei jarraituz.

PRADALESEN AGERRALDIA, INCOESAREN EGOERAREN BARRI EMOTEKO

Beste alde batetik, Imanol Pradalesek, Ekonomiaren Sustapenerako Diputatuak, gaur Batzar Nagusien aurrean egin dauen agerraldian iragarri dauenez, Aldundiak “irailaren 5ean”, Incoesa enpresak Bedian daukan lantegia hustutean, bere jarduera deslektu dauen ala ez argitzeko zabaldu eban ikerketa espedienteak instrukzio fasean jarraitzen dau. Txostena bukatu bitartean, Pradalesek eskaerea egin deusie gatazkan dagozan aldeei (enpresari eta beharginei), Eusko Jaurlaritzaren bitartekaritzea eskatu daien, “jarduerari eta lanpostuei eusteko konponbiderako bideak egon badagozala seguru dagoalako”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Incoesako beharginak muga bako greban dagoz joan dan maiatzaren 27tik, zuzendaritzak produkzioa Soriara eta Extremadurara eroateko daukan planaren kontra. Bizkaiko Talde Popularrak (PP) zein EH Bilduk diputatuaren prisazko agerraldia eskatu eben, koalizino abertzalearen berbetan “Bizkaiko 50 familia baino gehiagorengan” eragina daukan enpresa horren gatazkari buruzko azalpenak emoteko.

Pradalesek behin baino gehiagotan azpimarratu dauenez, “ez dabe ezelango zalantzarik eukiko” 2007an, diru-laguntzak edo bestelako laguntza publikoak jasoten dituen enpresen desleketzearen kontra onartu zan Foru Araua “azken musturreraino” apliketako orduan. Txostenak hori holan dala erakusten badau, Aldundiak, aitatutako arau horretan oinarrituta, Incoesari, Bizkaian dituan hiru filialen bitartez emondako foru laguntzea itzultzea eskatuko deutso –ia 200.000 euro–, atzerapenezko interesak ahaztu barik. Araudi horretan oinarrituta, enpresak eta lurralde honetan dituan bazkideek ez leukie Aldundiaren ezelango laguntzarik jasoko datozen 8 urteetan. Diputatuak adierazo dauenez, beharbada hilebete bi faltauko dira oraindino espedientea ixteko, beste kasu batzuetan izandako esperientziak kontuan hartuta.

EH Bildu taldeak esan dau zoritxarrez Aldundiak ez dauela bete joan dan ekainaren 24an Bizkaiko Batzar Nagusien osoko bilkura batean onartutako Adierazpen Instituzionala. Bertan eskaerea egiten jakon Aldundiari enpresari emondako diru-laguntzak edo bestelako laguntzak aztertzeke, ordurako aurreikusten zan “desleketze eta enplegu suntsitze mehatxua zala eta”. Talde horren eretxiz, espedientearen tramitazioa “berandu” heldu da.

**EZ DIRA ONARTU PP ETA BILDU TALDEEK ERRENTA IRREGULAR
ALTUENETARAKO SALBUETSITA DAGOZAN MUGAK ALDATZEKO EGINDAKO
PROPOSAMENAK**

Bukatzeke, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak ez ditu onartu, EH Bildu taldeak, Foru Arau Proposamen baten bitartez eta PP-k zuzenketa-eske baten bitartez, errenta irregular altuenetarako salbuetsita dagozan mugak aldatzeko aurkeztu dituen proposamenak. Ekimen bien helburua Pertsona Fisikoen Ganeko Errentaren Zergari (PFEZ) buruzko 6/2006 Foru Arauaren etekin irregularren baturaren mugari jagokon 19.2 artikulua aldatzea zan, baina EAJ-PNV eta PSE taldeen kontrako botoa jaso dabe. Talde bi horreetako ordezkariak gonbidapena luzatu deusie Bildu eta PP taldeei, “aste gitxi barru”, PFEZ-aren araudirako proposauko dituen aldaketa “sakonakaz” bat egin daien. Aldaketa horreek jeltzaleen eta sozialisten artean adostu dira, euren arteko hitzarmen fiskalaren barruan. Dana dala, Bildu eta PP taldeek, aldaketea eskatuz aurkeztu dituen testuak hurrengo osoko bilkura batean eztabaidetako erreserbau ditue.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Las Juntas Generales aprueban en comisión la modificación de los límites exentos para las rentas irregulares más altas

Bilbao, a 2 de octubre de 2013

La comisión de Economía y Hacienda de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado por unanimidad una Proposición No de Norma del grupo Popular Vizcaíno (PP) en la que se plantea a la Diputación Foral “estudiar la forma de colaboración con el Gobierno Vasco y Basquetour en la promoción y desarrollo cultural y turístico del Camino de Santiago a su paso por Bizkaia”. Para el portavoz del PP en la Comisión, Arturo Aldecoa, se trata de ser “más eficaces” en las iniciativas de promoción que las distintas instituciones vascas realizan de las dos vías “turísticas y culturales” que atraviesan el Territorio, como son la ruta costera y el camino de Santiago que discurre por el interior de Bizkaia.

En 2009 el Gobierno Vasco redactó un “Plan Director” para el desarrollo y promoción cultural y turística de los dos caminos de Santiago a su paso por Euskadi. Como idea fuerza, Aldecoa recuerda en su escrito que dicho documento destaca que las dos vías constituyen “un escenario de oportunidades” para el desarrollo integral de los municipios y comarcas que los acogen. Por eso, el PP cree que las acciones que se recogen en el plan del Ejecutivo vasco serían “más eficaces” si se realizasen de forma “coordinada” con la Diputación.

Todos los grupos de la cámara vizcaína han coincidido en que el Camino de Santiago, en sus dos variantes, es una fuente de riqueza para el territorio. EH Bildu ha pedido “mayores esfuerzos” de las administraciones vascas por mantener y promocionar esta vía que es más que una simple ruta “religiosa”. Alexia Castelo, del grupo Socialistas Vascos (PSE-EE), ha apostado por establecer sinergias y mejorar estas labores de coordinación porque es el momento de “optimizar los recursos”.

Mientras, el PNV ha defendido la labor de promoción turística que hace la Diputación. Los jeltzales mantienen que la colaboración entre administraciones “ya existe” y que las acciones incluidas en ese plan las está llevando a cabo el departamento de Promoción Económica, a través de su dirección de Turismo y Promoción Exterior, según los ritmos que va marcando el Ejecutivo vasco.

COMPARECENCIA DE PRADALES PARA INFORMAR DE LA SITUACIÓN DE INCOESA

Por otra parte, el Diputado de Promoción Económica, Imanol Pradales, ha anunciado hoy en su comparecencia en las Juntas Generales que el expediente de investigación abierto por la Diputación “el 5 de septiembre” para determinar si la empresa Incoesa ha incurrido en deslocalización de su actividad al dismantelar la planta de Bedia, continúa en su fase de instrucción. Mientras concluye el informe, Pradales ha pedido a las partes en conflicto (empresa y trabajadores) que soliciten la intermediación del Gobierno Vasco, porque está “convencido de que puede haber vías de solución” para mantener la actividad y los puestos de trabajo.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

La plantilla de Incoesa se encuentra en huelga indefinida desde el pasado 27 de mayo en contra del plan de la dirección de trasladar la producción a Soria y Extremadura. Tanto el grupo Popular Vizcaíno (PP) como EH Bildu habían solicitado la comparecencia urgente del diputado, para que diera explicaciones en relación al conflicto de esta empresa de la que dependen “más de 50 familias vizcaínas”, según datos facilitados por la coalición abertzale.

Pradales ha insistido en varias ocasiones en que “no les va a temblar la mano” a la hora de aplicar “hasta sus últimas consecuencias” la Norma Foral aprobada en 2007 contra la deslocalización de las empresas que reciben ayudas o subvenciones públicas. Si el informe demuestra esta deslocalización, la Diputación exigirá en base a esta norma la devolución de la ayuda foral -casi 200.000 euros- otorgada a Incoesa a través de tres de sus filiales en Bizkaia, mas los intereses de demora. Por medio de esta normativa, la Diputación imposibilitaría también que esta empresa y sus socios locales reciban ayudas forales durante los próximos 8 años. El diputado ha advertido que aún pueden tardar dos meses en cerrar el expediente, teniendo en cuenta otras experiencias del pasado.

Por su parte, EH Bildu ha lamentado el incumplimiento de la Diputación en base a la Declaración Institucional aprobada el 24 de junio en un pleno del parlamento vizcaíno, en la que se instaba al ejecutivo foral a revisar las ayudas o subvenciones que se mantuvieran con la empresa “ante la amenaza de deslocalización y destrucción de empleo” prevista. Cree que la tramitación del expediente llega “tarde”.

RECHAZO DE LAS PROPUESTAS DE PP Y BILDU PARA LA MODIFICACIÓN DE LOS LÍMITES EXENTOS PARA LAS RENTAS IRREGULARES MÁS ALTAS

Por último, la Comisión de Economía y Hacienda ha rechazado la modificación de los límites exentos para las rentas irregulares más altas que proponían EH Bildu, a través de una Proposición de Norma, y el PP por medio de una enmienda. La iniciativa de Bildu, que pretendía cambiar el artículo 19.2 de la Norma Foral 6/2006 del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas (IRPF) relativa al Límite conjunto de rendimientos irregulares, se ha topado con los votos en contra de PNV y PSE. Los representantes de estas dos formaciones han invitado a Bildu y PP a sumarse en “breves semanas” a los cambios “profundos” que propondrán para la normativa del IRPF, acordados entre nacionalistas y socialistas en el marco de su pacto fiscal. En cualquier caso, tanto Bildu como el PP han reservado sus respectivos textos de modificación para su debate en un próximo pleno.